



**TXIN
PART**

76

2022ko urtarila



Ikastola jasangarria gara

Agurra	3
GAI NAGUSIA	4
Berrikuntzak	6
Gurasoak partaide	9
Irakasleak	11
Urmendi	12
Hatzak bete lan	15
Neguko solstizioko ospakizunak	18
Oiartzo	34
Ikastolako taldea	35
Eskolaz kanpokoak	36
Laburrak	37

Hemen gatz **Txinpart!** aldizkariaren 76. zenbakiarekin. Hasia dugu 21-22 ikasturtea eta pandemiak badirauen arren, abian gara osasun egoeraren normalizazio bidean. Zoritxarrez, osasun neurriei dagokionez, oro har, ikastetxeetan ezer gutxi aldatu da aurreko ikasturtetik hona eta aurreko ikasturteko antolaketari eutsi diogu. Baina esan bezala, normalizazio bidean gaude eta normalean baino murrizagoa izan arren, eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza egiteko aukera izan dugu.

Haurtzaro Ikastolan aspaldian gabilta ingurugiroaren jasagarritasunaren alde lanean Eskola Agenda 21 egitasmoaren bidez, eta hor daukagu 2017an jaso genuen Eskola Jasagarriaren Aintzatespen Ziurtagiria lan honen erakusle bezala. Asko daukagu egiteko oraindik ordea, eta egitasmoa bera ere eguneratu egin da, Agenda 2030 izatera pasatuz. Bide honetan, Haurtzaro Ikastolako eraikinean beharrezkoak zaizkigun azpiegiturak egokitzen gabilta, ahalik eta energia iturri jasagarrien alde eginez eta energia gastua murriztuaz. Ale honetan duzue argiterian eta berogailu sisteman egiten ari garen bilakaeraren berri. Eta wegune berria ere jarri dugu martxan!

Bestelakoan, betiko atalak ere eskura dituzue eta Haurtzaro Ikastolaosatzen dugun proiektu honen partaide eta ekimen ezberdinen berri ere bai. Jarri eroso, goxo eta epel familian, eta ale hau irakurritz, goza ezazue elkarrekin!

Ikastola jasangarria gara



Hurtzaro Ikastolak, 2015ean, eraikuntzen energia azterketa bideratu zuen. Azterketa horretatik abiatuta, Ekintza Planean zenbait ekintza aurreikusi genituen.

Horien artean, ikastolaren jasangarritasunean eragin handiena zuten lan ildoak Obra Batzordeko helburuak bihurtu ziren:

- Galdaren aldaketa bideratzea, gasoliotik biomasara eta gas naturalera.
- Ikastolako geletako leihoen aldaketa.
- Erradiadoreen heldulekuak berriztatzea.
- Argiteria LED sistemarekin ezartzea.
- Aurrezpen energetikoaren kultura hedatzea ikastolako komunitatean.

Ikasturte honetan, lan plangintza honetan lan mardulak egin ditu ikastolak.

Berogailu sistema

2021eko udan Iturriozko galdararen biomasa-pellet aldaketa bideratu dugu. 219.347 euro gastatu ditugu, eta EEE Euskal Energiaren Erakundeak 35.880 euroko diru-laguntza onartu du. Galdara berri honekin ikastolaren jasangarritasun planeko atal garrantzitsua osatzen da.

Biomasa galdara? Pelletak dira gehien erabiltzen den erregaletako/materialetako bat.

Zehazki, hauxe da definizioa (Wikipediatik):

Egur pelleta egurra trinkotu eta lehertuz sortzen den erregaia da. Pellet hitza ingelesezetik zuzenean mailegatutako hitza da eta "bola txikia", "kaka-alea", "arkina", "altxirri", zein "pikorra" esan nahi du.

Sortzeko, zerrautsa edo antzeko materialak dira lehengai. Zerrategietako hondakinak batu eta tratatu egiten dira, lehenengo duen hezetasuna jaitsi behar zaio % 10 baino gutxiago izan arte, gero prentsa berezi baten pelletizatzailea zanpatu egiten da. Orduan, egurrak berak duen ligninak partikulak elkar lotzen ditu edo almidoia ere itsatsi ahal zaio itsasgarri modura.

Erregai moduan dituen abantailak handiak dira, biomasatik hartutako energia berriztagarria izateaz gain, bere erreketak ez du ia kerik sortzen eta ez du airea gehiegi kutsatzen.

Argindarra eta argiteria

Argiteria LED sistemarekin ezarri dugu, eta dagoeneko terrazan dauden eguzki plaka fotovoltaikoen jabe da ikastola ikasturte honetatik, ekoizle energetikoa bihurtuz.

Bestalde, GOIENER energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibaren bazkide gara eta gure energia elektrikoko kontsumo jatorri berriztagarrietatik eskuratzen dugu egun.

Agenda 2021en lehen, eta 2030en hartutako konpromisoen harira, ari gara ikastolak azpiegiturak egokitzen, pixkanaka. Gure asmoa da ahalik eta energia iturri jasangarrien alde egitea eta, noski, energia gastua murriztea. Orain inoiz baino gehiago (ez gara argindarraren fakturaz hitz egiten hasiko, baina ongi dakizue denek zein den egoera gaur egun).

Eta une honetan esan dezakegu, AGENDA 2030eko helburuak lortu dugula eta ikastolako eraikuntza JASANGARRIA dela!

Haurtzarok WEBGUNE BERRIA du

Martxan da www.haurtzaroikastola.eus webgune berria. Haurtzaro Ikastolako komunikazioaren bihotza izatea da asmoa, gainontzeko tresnen erdigunea, oinarria eta iturria. Aurrerantzean horixe izango da zuekin komunikatzeko gure tresna nagusia.

Proba fasea

BETA bertsioa da lehenengo kaleratu duguna. Zer esan nahi du horrek? Izan ditzakela akatsak eta hobetu beharreko gauzak, baina horiek ibilian ikusiko ditugula. Dena prest eduki arte itxaron bagenu, inoiz ez genuke bukatuko, akatsak edo arazo teknikoak beti izaten direlako.

Modu honetan, zuek erabiltzarekin batera, jakingo dugu zer dugun konpontzeko, hobetzeko, gehitzeko, kentzeko... Webgune bizia izango da denek ekarpenei esker, alegia.

Webgune erakargarria, erabilerraza egiten ahalegindu gara, Haurtzarori buruzko **informazioa modu argian eta azkarrean** denek eskuragarri egotea da helburua. Eta oso garrantzitsua den zerbait: *responsive* da, hots, gailu guztietara moldatzen da (ordenagailura, tabletera, sakelakora...).


Kooperatibatik kooperatibara

Lan mardul hau egiterako orduan, eta gure filosofia oinarri, inguruko jendearekin egin ditugu urrats guztiak. Diseinua Oiarzango Batuta enpresak egin du, eta lan teknikoak Erretererako Oleretako Talaios Kooperatibak.

Martxan dago tresna, zuen esku. Iradokizunik edo proposamenik izanez gero, gustu handiz jasoko ditugu.

Horretarako, webgunearen oinean bertan, iradokizunetarako tresna bat jarri dugu.


Gustuko izatea eta bere funtzioa ahalik eta hoberen betetzea espero dugu. Horretarako lanean jarraituko dugu, hori ziur.



Denak ezberdinak eta proiektu komun batean lanean: bizikidetzaren alde

Bizikidetzak da Haurtzaro Ikastolaren oinarrietako bat; elkarbizitza, bere zentzurik zabalenean. Azken urteetan lanketa sakona egin dugu gaiaren gainean, eta aurten, 2021-22 ikasturtean, hori irudikatzeko logo berri bat egitea erabaki genuen Bizikidetzak Egunaren harira, irailaren 27an.

Horretarako, aurretik Eneko Salaberria diseinatzailearekin (Dixidu) jarri ginen harremanetan, eta irudi baten ideia heldu ginen.



Logoa osatzen HH2ko Urmendiko gelatik hasi eta Haurtzaroko DBH4ra maila guztiek hartu dute parte. Bakoitzak zati bat apaintzeko ardura izan du, hitz bat oinarri hartuta eta material batekin.

Zati ezberdinak guztiak, forma ezberdinak, izaera desberdinak, bakoitza adin bakoitzaren gaitasunaren arabera... Pertsonak garen bezala. Konturatuko zarete logoa bera ere ez dela berdina izkina guztietan.

Hauk dira maila bakoitzak bere zatia osatzeko oinarri izan zituen hitzak, eta bakoitzaren lanaren azalpena:

- **HH2: Maitasuna.**
- **HH3: Elkar-zaintza.** Laguntzea, hor egotea... Hau, eskuaren irudiarekin lotu dugu: eskua eman, besarkada, bostekoa... Horretarako, haurren eskuak kolore argiekin (horia, magenta, urdin argia) margotu eta estanpatu egin ditugu.
- **HH4: Eskuzabaltasuna.** Konpartitzea, laguntzea.. dela uste dugu eta hori eginda ongi sentitzen gara. Hori irudikatzeko zetazko paperekin egindako koloretako pottokak erabili ditugu.
- **HH5: Parekidetasuna.** Denak gara desberdinak, bereziak, baina denek eskubide, aukera... berdina ditugu. Elkar errespetatuz eta elkar zainduz taldean gustura sentituko gara. Hori irudikatzeko komunezko paper-biribiltzaren xafla bana kolore ezberdinez margotu eta bakoitzaren zatia triangeluaren barruan itsatsi dugu (bakoitzak bere lekua izan du).
- **LH1: Enpatia.** Bestearen lekuan jartzea denez, beste hori nola sentitzen den ikusi ahal izateko zelofan papera erabili dugu eta kolore ezberdinetakoa aukeratu dugu, pertsonak anitzak garelako.
- **LH2: Aniztasuna.** Gure zatia opari-paperekin osatu dugu. Aniztasuna kolorez osatutako bizitza bezala ikusi dugu.
- **LH3: Partaide izatea.** Zelai batean belar mota guztiek dutelako lekua eta lagunek bezala belarrak ere zaintzea eskatzen duelako. Gainera, beti jaiotzen da belar berria, gure bizitzan harreman berriak, lagun berriak sortzen diren bezalaxe.
- **LH4: Erantzukizuna.** Gure zatian ahoa eta mihia ikusi ditugu eta zeta papera erabiliz ilustratu dugu. Erantzule izateko ahoa eta hitza erabiliko ditugu.

- **LH5: Kidetasuna.** Gure zatia berdez irudikatu dugu kolore hori argitasunarekin, positibotasunarekin, itxaropenarekin... lotzen dugulako. Borobilez kide bakoitza ere irudikatu dugu. Eskuak kidetasun ikurra bezala hartu ditugu.
- **LH6:** Elkartasuna-solidario. Elkartasuna kolore berdearekin lotu dugu eta mundua irudikatu dugu bertan. Elkartasun sarea irudikatzeko erabili ditugu sokak eta artileak.
- **DBH1:** Zintzotasuna-jatortasuna. Ez da ongi portatzea bakarrik, ez da laguna ez jotzea, edo bakarrik ez uztea. Kolore asko dituen bihotzak, koloreak onartzen dituen bihotzak zintzotasuna eta jatortasuna bere baitan ditu.
- **DBH2:** Tolerantzia. Guk irudi honekin adierazi nahi dugu bi pertsonen pentsatzeko moduak desberdinak badira ere, elkarren artean errespetua mantenduz laguntasuna egon daitekeela.
- **DBH3:** Borondatea-ekintzailetasuna. Gure marrazkian borobil asko margotu ditugu behean, kolore eta tamaina ezberdinetakoak, bata besteekin nahasiak, pertsona ezberdinak adieraziz. Borobil horietatik goraka dauden lerroak marraztu ditugu eta goi-goian borobil handi bat egin dugu kolore ezberdinez osatua. Marrazki honekin, pertsona guztiak batera lan egiten dugunean hobeak garena irudikatu nahi dugu.
- **DBH4:** Askatasuna. Marrazki honek askatasuna adierazten du. Irudian txori bat ikus dezakegu kaiola batean hitzaldi bat ematen. Guk honekin adierazi nahi izan duguna da kaiolan dagoen txori bakar horrek beste txoriak askatzeko lan egiten duela, nahiz eta jakin berak ez duela beretzat askatasuna lortuko. Txoriak askatasunaren erakusle garbiak dira, zeruan hegan egiten baitute, ezertaz arduratu gabe.

Hau da logoa, amaituta:



BIZIKIDETZA

Haurtzaro Ikastola

Ikusi nahi duzue nola izan zen sortze-prozesua?

[Klik egin bideoan!](#)

Sortze prozesua ederra izan zen. Orain apaingarri berri bat dugu Haurtzaro Ikastolan, aniztasunetik abiatuta elkarbizitza zein garrantzitsua eta aberasgarria den gogorarazten diguna.

Zorionak denei egindako lanagatik! Bizikidetza zoriontsu batengatik, topa!



Guraso Ordezkarien foroaren eraikuntza kolektiboa

Ikastolaren oinarrietako bat familien partaidetza eta proiektuarekiko konpromisoa izan da betidanik. Gurasoak ikastolaren parte garena sentiarazi eta parte-hartzea sustatzea izan da beti helburua, eta horretarako zutabe nagusietako bat geletako Guraso Ordezkarien foroa izan dugu.

Foro hauek dinamikoak eta baliagarriak izateko ahaleginak egin izan dira, baina ez da erraza, partaide kopurua handia delako eta urte batetik bestera aldaketa handiak egoten direlako: bai partaideen artean, baita bilerak zuzentzen dituztenen artean ere.

Hau guztia hobetearren eta berrantolatzearen, iaz dena hankaz gora jarri genuen: Guraso Ordezkarien zereginak eta komunikazioa zehazteko asmoz, talde kohesioa sortuz, parte-hartzea sustatzeko eta konfiantzazko gune kolaboratiboa eta kooperatiboa elkarrekin eraikitzeke.

Aurtengo ikasturteko asmoa iaz hasitako lanarekin jarraitzea da, eta bukatzerakoan hurrengo urteetarako baliagarria izango den sistema eta tresna bat dokumentu batean jasotzea.

Zergatik prozesu parte-hartzaile bat?

Parte-hartzeak ikasketa prozesuak dira eta jendeari bere inguruaren azterketa kritikoa eta dimentsio aniztuna egiten laguntzen diote. Prozesu bakoitza ikasketa prozesu indibiduala ez ezik kolektiboa ere bada. Prozesu horietan egiten diren urrats guztiek pertsona guztien parte hartzea lortu nahi dute. Taldearen errealitatea eta egoera espezifikoaren azterketa kritikoa egiten da, beti ere, parte hartzen duten pertsonen esperientzietatik abiatuta eta "kode kolektiboen" eraikuntzaren bitartez.

Errealitatearen azterketa era eta ikuspegi ezberdinetatik egiten da; batetik, kontuan izanda errealitate berbera oso modu ezberdinetan hauteman litekela, errealitate horri begiratzen dion subjektuaren arabera; eta, bestetik, errealitatea ez dela lineala, eta dimentsio bakarreko edozein azterketak ulermena eta aldatzeko gure gaitasuna murrizten duelako.

Berez, ilusioz abiatu dugun prozesu honek 3 ezaugarri nagusi hauek ditu:





- Elkarrekin eraikitzeko aukera ematen duten espazio demokratikoak sortu ditugu.
- Etengabeko hausnarketaren eta ekintza dinamiken bidez eraikitzen da, hau da, jendeak boterea eskuratzen du aldatu/hobetu nahi duen horren alde lan egiteko.
- Malguak eta egituratuak dira, parte-hartzean oinarritutako ikasketa eta ekintza prozesuak, landu beharreko gaitik harago.

Labur esanda, eraldaketa prozesu kontziente hau taldeko pertsonen esperientzietan oinarritzen da, eta parte-hartzea, inplikazioa nahiz jabetzea indartzen duten tekniken bitartez, egoera aztertzen laguntzen du, bukaeran taldean lantzen ari den gai zehatzaren inguruko ekintzara iritsi ahal dadin.

Hala izan dadila.



Eskolako Agenda 2030: Garapen Iraunkorreko Helburuak

Iaz hasi genuen ildo berritik jarraituz, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 2015ean aho batez onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari helduko diogu. Gogoan izango duzue, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak 17 helburu definitu ditu eta Oarsoaldeko ikastetxeek elkarlanean ikasturtero horietako bat aztertuz gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzia kritikoa duten bost esferatan lan egin nahi dugu: pertsonak, planeta, oparotasuna, bakea eta lankidetzak.

Zelaiak, larreak eta landare itsutasuna

Lehorreko ekosistemetako bizitza deituriko 15. Garapen Iraunkorreko helburuan kokatu dituzten **zelaiak eta larreak** aztertuko ditugu aurten. Horiekin batera, bertan dagoen landare itsutasunaz jardungo gara, zientifikoki zein emozionalki gerturatzeko.

Haurtzaro Ikastolako komunitate osoak historikoki ingurumenarekiko garatu duen sentsibilizazio eta kultura areagotzen laguntzen duen eskola agenda proiektuaren faseak ezagunak dira; hasierako **antolakuntza**, gaiarekiko **motibazioa**, herri eta ikastolako **diagnostikoa**, **esku-hartze plana**, horren **komunikazioa** eta ikasturtearen amaieran egingo dugu **ebaluazioa**.

Ikastolaren eta udalerrriaren diagnostikoa egiteko helburuarekin honako jarduerak garatuko ditugu:

HAUR HEZKUNTZA

- Ikastolatik gertu dagoen zelaia edo parke batera hurbildu eta inguruko behaketa zentzumenen bidez egitea proposatzen dugu. Irteeran zehar ikusi edo antzematen ditugun bizidunak zenbatuko ditugu eta, nahi izanez gero, ikasgelara bueltatzean murla edo hormairudia osatuko dugu.

LH 1 ZIKLOA

- Zelaian bizi diren landareen bila.
- Bertako landareak ezagutzen.
- Oiarztungo zelaiak eta txokoak aztertzen.



LH 2 ZIKLOA

- Ziklo honen helburua parke naturalak eta artifizialak alderatzea da, ikastolako patioari erreparatuz. Modu berean, eremu naturalek eskaintzen dizkiguten onurak azalduko dira.

LH 3 ZIKLOA

- Ziklo honen helburua herrian aurki daitezkeen bizidunak ezagutzea da, zelaia eta larreak modu berezian erreparatuz. Horretarako ikastolatik gertu dauden eremu ezberdinak aztertzea proposatuko da: zelaia, larrea, putzua, heskaia, horma zaharra... biodibertsitateari erreparatuz.

DBH 1 ZIKLOA


- Ikasleek herrian dagoen eta zelaia edo/eta larrea barnatzen duen eremu baten azterketa egingo dute.

DBH 2 ZIKLOA

- Lehorreko ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak ezagutzea izango da ziklo honetako ikasleen helburua. Modu berean, haien gainean gizakiak sortzen duen eragina aztertuko dute.

Irakasleok, Arazi Elkarteko kideekin elkarlanean 2021-22ko ikasturte honen lehenengo ebaluazioan prestakuntza-saio eta koordinazio bileratan proiektuari aurreko egiteko baliabideak diseinatu eta prestatu ditugu.

Saioak



Elkar ezagutzeko eta konfiantzazko giroa sortzeko jolasak.

Oinarritzko galderei erantzunez hasi eta hortik eraikitzen jarraitu.

Saioaren balorazioa egin.

Nola bizitu duzue egokitzapena?



Aintzane Zufiria,
Maitane Eloseggi eta Haize

Aurten matrikulatu dugu gure haurra Urmendiko 2 urteko geletan. Bi urtez etxean izan ondoren beste norbaiten zaintzaperas pasatuko zen lehen aldia zen. Hasi aurreko hilabeteetan gure elkarriketa askotan ateratzen zen gaia zen, haurra prestatu nahian ari ginen, edo gure buruak prestatu nahian, hobeto esan.

Iritsi zen hainbestetan irudikatutako iraila. Lehenengo egunean gurasoak bildu ginen irakaslearekin, gure lehenengo eguna zen, beraz. Elkarriketa polita izan genuen, gure haurra nolakoa den deskribatzen saiatu ginen, hurrengo egunean, iristerako garaian, irakasleak berak jada jakin zezan. Gurasoak haurren lanak aurreratzen oraingoan ere.

Urduritasuna, gogoia, haurrak nola erantzungo zuen ez jakitea... ziren lehenengo egunetako gure sentimenduak. Gelara sartu orduko gure haurraren behaketa lana hasi zen. Guregandik gehiegi urrundu gabe, baina inongo xehetasunik galdu gabe. Pozik itzuli ginen etxera, hurrengo egunean berriz ere itzultzeko asmoz. Egunak joan eta egunak etorri, ordea, galdera asko suertatu zitzaizkion txikiari, eta tartean hausnarketa sakona:

- Ama hau zer izango da berriro, berriro ta berriro?

- Bai ttiki, halaxe da.

Egoeraren jabe egin zen dagoeneko. Goiza dominatuta bazkal ordurako garaia iritsi zen. Bi aste gose greba. Goizean goizetik bere intentzioak garbi:

Ama gaur ere ez dut bazkalduko e!

Ostiral batean kroketa goxoak iritsi ziren arte. Amore eman eta hau ere onartu zuen.

Egokitzapen garaian, erabat lagungarri suertatu zaigu irakasleek transmititu diguten lasaitasuna, egoera goxo bat sortzeko jarri dituzten baliabideak, haurrari bera den bezala izateko eskaini dioten espazioa, denbora... Berehala bihurtu da gure txikiaren espazio seguru. Bere bila joan eta poz-pozik jolasten ikusteak adierazten digu halaxe dela. Urmendi familia bat da, bertako langile, haur, familia guztiok osatzen dugu, edo horrela sentiarazi digute hasieratik.

Kalitate handia dagoela sentitzen dugu, profesional taldearen aldetik, espazioaren aldetik, elikaduraren aldetik, proiektu osoaren aldetik, azken finean. Pozik gaude bertako partaide garelako!

Mila esker Urmendiko proiektu zoragarri honen parte zareten guztiei!



Leire Jauregi Agirretxe

Beti irakurri eta entzun dut egokitzapenak zer dakarren. Haurrak etxean izan dituen atxikimendu figura horiez gain, ezezagunak gaituzten hezitzaileak ezagutzea eta gurekin atxikimendu-harreman berriak sortzea eta garatzea da helburua; baita beste gelakideekin ere. Horretarako, haur bakoitzak behar duen denbora aintzat hartu behar da; ez da hobe edo okerragoa den egokitzapenik.

Egokitzapen prozesuan berebiziko garrantzia du familia eta ikastetxea elkarlanean aritzeak, bestela esanda, bien arteko harmonia eta komunikazio egokia izateak. Bereizketa momentua berezia da, eta une horretan, ohiko erreakzioak izaten dira frustrazioa bizitzea, pena sentitzea edo negar egiteko gogoia edukitzea. Beraz, bai gurasoek, baina baita hezitzaileek ere, segurtasuna eta konfiantza transmititu behar diote haurrari.

Gure haur eskolari dagokionez, egokitzapen garaia heldu aurretik, familiei gomendio batzuk ematen dizkie tutoreak, eta haien rola zein izango den azaltzen zaie. Beren presentzia ezinbestekoa dela esaten diegu, eta haien lekuan jartzen garela adierazten diegu, momentu zaila izan baitaiteke. Hori horrela, egokitzapen aldian hasten denean, aulkia jartzen dizkiegu bertan egon daitezen eta, hartara, haurrak izango dira espazioa konkistatuko dutenak, betiere, bakoitzaren denbora eta erritmoa errespetatuz. Hasieran, ohikoa izaten da haurra senideen ondotik ez mugitzea, baina pixkanaka-pixkanaka, konfiantza hartzen doan heinean, familiako kideengandik urruntzen hasiko da: gustuko objektuekin esploratzen hasiz, gelan zehar mugituz... Eta hor hezitzaileak daude. Materiala eskainiko diote, berarekin interakzioan ariko dira eta elkar ezagutuko dute. Era berean, garrantzitsua da begirada, baita egiten ari denari hitza jartzea ere. Izan ere, modu horretan, haurrari konfiantza transmitituko diogu, eta poliki-poliki gurekin atxikituko da.

Hezitzaile bezala, azaldu berri dudaren garrantzia nabarmendu nahiko nuke. Egokitzapena bizi izan duan lehenengo aldian da eta, egia esan, gogorra egin zait. Batetik, taldean aurreko ikasturtetik ezagutzen nituen haurrak nituen eta, bestetik, aurten hasitakoak. Ez nuen, ordea, sentitutakoa espero eta momentu batean egoera kudeatzea ez zitzaidan erraza suertatu: haur bakoitzarengana nola iritsi? Nola eman bakoitzari behar zuena? Familien beharrei behar bezala nola erantzun?

Gainera, uste nuen aurreko ikasturteko haurrek buruhausterik ez zidatela emango, baina haiek ere maila bereko arreta merezi eta behar dutela konturatu nintzen. Hortaz, laguntza eskatu nuen, kideen esperientziak baliatu nintzen, aholkuak entzun nituen.

Pixkanaka, egokitzapenak aurrera egin zuen, eta ordura arte egindakoak emaitza ona izan zuela konturatu nintzen. Izan ere, gaur egun, haur horiek irribarre batekin agurtzen naute, begirada goxo batekin begiratzen naute, pozik ikusten ditut, erreferentzia gisa hartu naute, nire begirada eskatzen dute. Aurretik bizitako momentu horiek fruitua ematen ari direla ikusteak poza ematen dit, eta orain gozatzeko unea da.



Arkaitz Maritxalar
eta Onintza Mitxelena

LEHEN HEGALDIA

Tik-tak tik-tak, badator iraila, tik-tak tik-tak iritsi da momentua, edo beharra, edo inertzia... Gure txikia hegoak zabaldu eta gurasoon habiatik kanpora lehendabiziko saltotxo ematera doa. Denontzat da berezia lehendabiziko aldi hau: guraso, aitona-amona, izeba-osaba... denek galdetuko baitute zer moduz joan den.

Baina ez gaude bakarrik, Urmendi haurreskolako lan talde osoa dugu gure aldamenean, batzuk gertu-gertu, bigarren guraso izateko prest, beste batzuk pixka bat urrunago, izeba-osaba lanak egingo dituztenak eta, gainerakoak, nahiz eta harreman zuzenik ez izan, gure txikiari lehen bidaia honetan esku eta bihotz zabal lagunduko diotenak.

Iraila iristearekin batera hasi gara gurasook ere urdailean lumatxoan kilimak sumatzen. Gure kasuan arratsalde dugu lehendabiziko hitzordua, ordu bete, poliki-poliki, bakoitza bere martxan, haurra errespetatuz, bere nahiak zein diren aintzat hartuz. Sarritan ez baikara konturatzen zein garrantzitsua den lehendabiziko pausotxo hauek sendoak eta indartsuak izatea, haurra seguru sentitzen dela adierazten dutenak, berak adierazten digunari kasu egitea.

Lehenik ordu bat, gero bi; hasieran irakaslearekin bakarrik, elkar ezagutza, edo autoezagutza; ondoren, hau ere lehen aldiz, habiatik saltotxo ematera doan beste gelakide batekin. Eta gu hantxe, hasieran gelako gure txoko txikian, aulki txikian, han dena baita txikia, gure txikiaren neurria egina; gu ere gure alaba ezagutzen, hasieran uste baino lotsatiago, edo izutiago, edo ausartago; pixkanaka, bakoitza bere martxan.

Momentua iristean, gurasooi dagokigu pausotxo, edo pauso handia, ematea. Aurrez irakaslearekin hitzartu bezala; hiru, bi, bat, arnasa sakon hartu, irribarre zabal-zabal batekin muxu goxo bat eman alabari, "orain nator, maitia, flauta eroatera noa" esan eta atzera begiratu gabe, segurtasunez edo hala adierazi nahian, bagoaz mundu "ttikitik" kanpoko mundu erraldoira, gu ere pixka bat txikiago... Eta agian bakarren bat Mikel Laboaz oroitu da: "Ama! Eten dezagun... zilbor-hestea..."

Behin martxa hartzen hasita, bata bestearen atzetik datoz hegaldiak, baina bakoitzak haize korrante ezberdina du hegaldi-lagun. Batzuk zuzen-zuzen doaz, hegal zabal, konfiantza osoz; beste batzuk, gora eta behera dabilta, haize korranteak harrapatuta; bakarren bat, hasieran konfiantza handiegiz abiatu eta haize boladak izututa edo, bueltan dator habia ingurura; bakoitza bere martxan... horixe da egokitzapena.

Hasierako ordu betetik abiatu eta bazkalgaraia eta lo kuluxkaraino iritsi arte.

Abiatu dugu guk ere gure hegaldia, ea haize korrante egokiarekin egiten dugun bat gure bidaian.

Mila esker, Mamiñe, Xexu, Ixi eta Iraia.



Guraso Eskola

Joan den abenduaren 14ean Alvaro Beñaran izan genuen Urmendin. Beñaran ibilbide luzeko pedagogo eta psikomotrizista da eta ondorengo gaia izan genuen hizpide:

ZER EGIN DEZAKEGU HELDUOK HAURRA GARAPEN EGOKI ETA OSASUNTSUAN ARITZEKO ETA HELDUTASUN/AUTONOMIA PROZESUAK INDARTZEKO?

Hogeita hemezortzi lagunek eman zuten izena eta giro goxo eta lasaian pasatu genituen bi orduak. Ondorengo balorazioa oso baikorra izan da, eta gurasoak benetan pozik daude bertan jasotako edukiekin.

Heriotzaz hausnartzen

Haur Hezkuntzako etapako irakasleok (0-6), ikasturtero elkarrekin formazioaren bat egiten saiatzen gara, denentzat baliagarria den gairen baten inguruan.

Aurten, kurtsoa hasi berrikan egin dugu doluari dagokiona, eta horretarako, Aingeru Oñartabal izan genuen bi saioen gidari. Horien edukiaz aritzea ez da erraza, eta are gutxiago motz-motzean. Era berean, bertan bizitutakoak eta handik ateratako ikaskuntzak ere, oso norberarenak izan ziren eta, beraz, denak hemen jasotzea ezinezkoa da.

Esan dezakeguna da doluaren inguruan hausnartzeko balio izan zuela. Izan ere, bizitzaren parte dela jakinik, nola bizi dugu heriotza gertatzen denean, baina baita gertatu aurretik ere? Zer helarazten diegu haurrei gure egoteko eta esateko moduekin? Nola erantzun ttikiaren eta haien familien beharrei?

Argi dago bizitzaz eta horrekin batera, heriotzaz, familia eta irakasle bakoitzak izandako bizipenen eta pertsonalki egindako lanketaren arabera duen ikuspegia ia bakarra dela; eta halako egoeren aurrean ezinezona eta nola asmatu ez jakitea ohikoa dela.

Lau orduko hausnarketa eta ariketa-tartea motz gelditu zitzaigun, egia esan; edango genukeen gehiago Aingeruk esandakoetatik, kideekin izandako elkarriketetatik eta esperientzietatik, baina dena den, esango dugu norberak bere abiapuntutik ibilbidea egin genuela.

Eskerrik asko, Aingeru!

Petoak eta kalearen erabilera

Gure proiektuaren oinarrietako bat da hurrekin gelatik kanpo pasatzen dugun denbora. Urmendiko eraikin berria diseinatu zenean, beraz, garrantzia berezia eman genion kanpoaldearen diseinuari (eremuak eta elementuak nola bereizi eta kokatu oso kontuan hartu genuen). Eremitik kanpo ere, ibiltzen gara inguruko bazterretan.

Kalea esperientzia gune izugarri aberatsa da, aurkikuntzak beti dira berriak: barietate handiagoko formak aurkituko ditugu, hainbat kolore eta testura ezberdin. Eta ikusi, ukitu eta sentitutako guztia erreala izango da. Kaleko bizipenak eta aberastasuna gelan erreproduzitzea oso zaila da.

Kalean eta bereziki naturarekin kontaktuan jolasean dabiltzala, berezkoa duten sormenari zukua aterako diote txikiak:

- Zuhazpean sartu, eta hostoak banan-banan kentzeak motrizitate fina lantzeko gelako jostailurik egokiena ordezkatzuko du.
- Lurreko harriekin multzokatzeak egingo dituzte; harri berarekin burdinazko hesia jo eta soinua aterako dute, bera hor dagoela ozen esateko batek eta *kax-kax-kax* joaz, erritmoa landuz besteak.
- Erdi ustelduta dagoen enbor zatian makilekin aztarrika egin, eta bildu-bildu egindako kukurutxak agertuko zaizkie, gelan ikusten dugun *Wonbat ttiki*-ren ipuinean bezala.
- Zelaiko loreak behatu, bildu, usaindu, eta akaso etxeko norbaitentzat jaso nahi izango ditu baten batek.

Bat-batekotasuna osagai garrantzitsua da jolas guztietan, baina kaleak sorpresak behin eta berriz agertzeko espresuki egina dirudi.

Esperientzia sentsorialez gain, ezin aipatu gabe utzi trebetasun motorrei dagozkienak. Errealak diren lurzoru, kroska eta gainditu behar dituen -eta kasu gehienetan gainditu nahiko dituen- trabak eta mugak eskaintzen dizkio haurrari. Hareatzara sartu ahal izateko pasatu behar duen egurrezko koxka; lur-zoru lautik harri koxkorrez beterikora pasatzeak dakarren oreka-desoreka lanketa; makiltxo, zuloz eta aldapatxo betetako zelaia. Horiek guztiak erronka izango dira berarentzat, eta gero eta modu autonomoagoan gaindituko ditu.

Gurean, baina, eguraldia ez dugu askotan lagun izaten eta, beraz, kalera ezin izaten dugu nahi bestetan atera. Azken ikasturteetan, gainera, txandakako sistema dela eta, Urmendiko kanpo-eremua erabiltzeko aukera gutxiago izan dugu.

Hori horrela, familiei eskatu genien, lehendik zituzten katiuskez gain, euritarako PETOAK ekartzeko.

Gure aldetik, orain arte egindako balorazioa ezin hobea izan da:

- Katiuska hutsek ematen duten baino babes dezente handiago eskaintzen dute, ondorioz, eguraldi petralagoarekin edo lurzoruak oso bustiak egon arren, kaleaz kalean gozatzeko aukera izan dute hurrek.



- Babesa handiagoa izanik, ur-putzuetan lasai arraio aritu dira, arroparik busti gabe, eta beraz, hostu gabe.
- Hareatzan lasai eserita egoteko aukera ematen dute, baita jolas-lekuko zabu, txirrista eta gainerakoetan... ere.
- Petoak jartzea gelako beste ekintza baten gisa hartu dugu: bakoitzak berea identifikatu, oinetakoak kendu, jazten saiatu (kurtso bukaeran askok autonomia handia lortu dute).
- Gelara bueltan, barruko arropa aldatzerik ez dugu behar izan.

Gurasoei ere galdetu genien, eta hona hemen, iazko guraso batzuek honen inguruan esandakoak:

“A nosotros nos ha encantado la idea. Proporciona a los niños más oportunidades de juego con barro, charcos... estando adecuadamente vestidos para ello. Y por supuesto, les da la opción de estar más tiempo al aire libre.”

“Eguraldiaren mugak zabalduz, aukera berriak eskaintzen dizkie hurrei inguruaz, naturaz eta lagunekin gozatzeko. Urmendik honetan (ere) asmatu duela uste dugu.”

“Guk oso ongi ikusi dugu petoaren erabilera. Egun euritsuetan kalean aritzeko eta beraiek petoa jantzea uretan ibili ahal izatearekin lotzea ona dela uste dugu. Eta galtzak lehorrak.”

“Petoaren inguruan, gure aldetik eskerrak eman lehengo eta behin, izan ere irakasleentzat lan karga handiagoa suposatzen baitu arropak jarri, bustiak kendu... Eta errazena aldatetik ez egitea izaten da, beraz, zorionak! Guk aurrera pauso garbitzat dugu, euria eginagatik ateratzeko aukera izatea oso ona baita txikiarentzat. Gure aldetik erabat alde eta eskertuak!”

“Petoaren inguruan... egunerokoan jantzita daramaten arropa gutxiago zikintzeko eta horrenbestetan ez aldatzeko baliagarria izan dela uste dugu, beraz, guri guraso bezala primeran etorri zaigu! Horretaz gain, kalera ateratzeko aukera gehiago izan dutela esango genuke, bustita egonda ere jolasean lasai aritzeko aukera izan dutela.”

HAUR HEZKUNTZA 3

Antzezten gozatuz!

DENOK GOGORATZEN DUGU INTXAUR AZALAZ ITSASONTZIA
IRUDIKATZEN GENUEN GARAIA, EDOTA ZAPIA BURUAN
JARRITA PIRATA, AMONA EDOTA OTSOA BIHURTZEN GINEN
UNE ZORAGARRI, IRRIKAGARRI ETA LILURAGARRI HORIEK.

HAUR HEZKUNTZAKO 3 URTEKO IKASLEAK HORRETAN
DABILTZA: ENTZUTEN ETA KONTATZEN DIZKIOGUN IPUINAK
ANTZEZTEN.

JOLAS HORRETAN BERAIEK EMOZIOAK BIZITZEN ETA
KANPORATZEN DIITUZTE, KIDEEKIN GOZATUZ. HORI DENA
EDERKI IKUSTEN DA ONDORENGO BIDEOAN:



Udazkenaz gozatzen



GURE INGURU EDERRA APROBETXATUZ UDAZKENA GERTUTIK BIZITZEKO AUKERA IZAN DUGU. URTARO ALDAKETAZ JABETU GARA; HOSTOEI KOLOREAK NOLA ALDATU ZAIZKIEN IKUSI DUGU, UDAZKENEKO FRUITUAK EZAGUTU DITUGU ETA BASOAN TOPATUTAKO INURRIEN BIZIMODUAZ ZERTXOBAILT IKASI DUGU.

ERA BEREAN, MENDIAN GAZTAINAK, HOSTOAK, MAKILAK, EZKURRAK... BILDU ONDOREN, GELAN GURE BASOA OSATU DUGU.

Gure herria ezagutzen




ORAINGO HONETAN, GURE HERRIKO TXOKOAK EZAGUTZEKO ZENBAIT EKINTZA BURUTU DITUGU. HASTEKO, *XABIER LETE TTIKI* IPUINA JARRAITUZ, PLAZA INGURUA EZAGUTU DUGU. ONDOREN, ZENBAIT AUZO BISITATU DITUGU.

BISITA HAUETAN, HERRIKO ERAIKUNTZEN, ESKULTUREN, MENDIEN... EZAUGARRIAK AURREZ AURRE BEHATU DITUGU.

ETA BADAQUIZUE? BEHATUTAKO GUZTIAREKIN, DENON ARTEAN, HERRIKO PLANOA ETA MAKETA EGIN DITUGU. IKUSI NAHI?



NEGUKO SOLSTIZIOKO OSPAKIZUNAK



San Nikolas Txikia

Abenduaren 5ean, San Nikolas Txikia eguna ospatzen da. Euskal Herriko hainbat lekutan Oles egiteko ohitura dago, hau da, etxez etxe kantuan ibiltzeko ohitura, etxekoei zorionak emanez eta etxeko guztiei koplak kantatuz.

Hautzaro Ikastolako haurrak ere ohitura zahar honi jarraituz kantari ibili ohi dira, normalean, Oiartzungo Elizalde auzoan zehar. Aurten, abenduaren 5a igandea izan zen, eta ospakizuna 6ra pasatu zuten, astelehena. Baina, eguraldia ez zuten lagun izan eta azkenean ospakizuna ikastola barruan egin zuten. Goizean abestuta lortutako puskekin, arratsaldean merienda ederra egin zuten.



San Tomas

Ohitura zaharrari jarraituz, abenduaren 21ean ospatzen da San Tomas. Hautzaro Ikastolan, ordea, jaia 20ra aurreratu genuen, oporren aurreko azken egunera.


Ikasturte honetan ere, egun hori ezberdin ospatzea egokitu zaigu, osasun egoera dela eta. Dena den, San Tomas azokaz gozatzeko aukera izan genuen, burbuilak errespetatuz. Horrez gain, goizean zehar maila bakoitzak bere antolaketa izan zuen (ikus-entzunezkoak, jokoak tailerrak...), txistorra ogitartekoa jateko tarte ere bai. Eta, hori ez ezik, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan zuten haurrek.

Garai batean baserri azokaren eguna zen, baserritar asko maizter bizi ziren euren baserrietan, eta aldiro errenta ordaindu behar zioten nagusi edo jabeari. Horretarako epea San Tomas eguneraino luzatzen zen.


Egun horretan hirira jaisten ziren errenta ordaintzera eta, bide batez, euren produktuak (barazkiak, kapoiak, oilaskoak...) saldu eta beste batzuk erosten zituzten. Gainera, hirietan bizi zirenek, Gabonetan zehar jango zituzten jakiak erosten zituzten.



NEGUKO SOLSTIZIOKO OSPAKIZUNAK



NEGUKO SOLSTIZIOKO OSPAKIZUNAK



Gabon kantari

Abenduaren amaieran bizi genuen osasun egoera ikusita, abenduaren 24an, Olentzero Egunean, urteroko ohitura jarraituz Oiartzungo kaleetan eta auzoetan kantari EZ ateratzea erabaki genuen bigarren urtez.

Ikastolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek ezohiko egoera bizi dugu, eta ez ginen plazan bildu. Horren ordez, San Tomas Eguna ospatzearekin batera, Gabon kantari aritu ginen maila guztietan, burbuilak errespetatuz.

Ea datorren urtean kalez kale ibil gaitezken.



LEHEN HEZKUNTZA 1

Hizkiekin jolasean

Kaixo lagunak!


Lehenengo mailan gaude. KIMU material didaktikoa erabiliz, gauza mordoa ikasten ari gara.

Ba al dakizue gai bakoitzarekin erronka bat burutu behar dugula? Dagoeneko 1. erronka egin dugu: gure ikastola, ikasmateriala, material manipulatio mordoa, gelakideak, irakasleak eta ingurua ezagutu ditugu; eta guztion artean egin dugun bideo zoragarri batean gure familiakoei guztia erakutsi diegu. Pila bat gustatu zaie guztiei!

Bestalde, zotzak, erregeletak eta gelako materiala erabiliz, zenbakien munduan murgilduta gabiltza. Matematikan ere jolas asko ditugu: matikerlariak gara!

Eta nola ez! Irakurtzen eta idazten ikasten ari gara! Ikasturte hasiera honetan *Hiztegi jolastia*-rekin jolasean ibili gara eta pixkanaka hizkiak ezagutzen ari gara.

Lanketa honetan hizkiekin artelanak egin ditugu eta gure korridorea museo bihurtu dugu. Gorputzarekin hizkiak irudikatzen ere ibili gara eta asko ikasteaz gain, primeran pasatu dugu! Ikusi ikusi ze gauza politak egiten ditugun!



TXINPART 76

LEHEN HEZKUNTZA 2

LH2kook kanpoko saioak egin ditugu

Animaliak lantzen ari garen honetan, kalera irten gara gure inguruko animaliak behatzera. Inguru zoragarriak ditugula aprobetxatuz, Iturriotz eta Txara aldera joan gara. Animalia mota asko ikusi ditugu, hala nola, ugaztunak, hegaztiak, narrastiak eta intsektuak.

Horien ezaugarriak ikastearekin batera, beraien bizilekua aztertzen ibili gara. Horretarako, Oiartzunek eskaintzen dizkigun paisaia ezberdinak landu ditugu: herria, mendia edota basoa.

Askok ikasteaz gain, primeran pasatu dugu gure artean.



Haurtzaro Ikastola · 2022ko urtarrila

LEHEN HEZKUNTZA 3

GURE TXOKO KUTTUNA, Oiartzungo ondarea

Txanelako 1. unitatean **Gure txoko kuttuna** landu dugu. Oiartzun hobeto ezagutzeko, auzoka elkartu gara eta auzokideen artean Lapbook-ak osatu ditugu, ondoren gelakideei aurkezteko. Gaia bukatzeko, Joxe Mari Mitxelenarekin, Maripirekin (Alain eta Naroaren amona) eta Elena Zalakainekin egon gara. Aukera paregabea izan dugu Elizalde auzoko ondarea ezagutzeko eta bertako istorioen berri entzuteko.

Goizean, Joxe Marirekin, Lartaundarren etxetik hasi, Beheko Plazaren historia entzun eta plazara igo gara. Udaletxearen ezaugarriak azaldu dizkigu, eta Oiartzungo “kalea”ren izenaren jatorritik Urtxaleren istorioetaraino jakitun egin gaitu. Elizako eskaileretako kanoi zuloaren eta elizaren izaera zibilaren berri ere eman digu, Oiartzunek bi alkate izaten zituen garaia gogora ekarriz. Elizak pasabide sekretuak ere baditu eta bat ikusteko aukera izan dugu!

Arratsaldean Maripirekin eta Elena Zalakainekin egin dugu hitzordua eta Arizmendiko lorategian elkartu gara. Garai bateko argazkiak erakutsi bitartean kontu kontari aritu zaizkigu: birramona inude etorri zela Bergaratik, senarra txofer aritu zela... Ondoren etxea bisitatu dugu, txokoak ikusi, zirrikituak, ate ezkutuak... Bien bitartean ondarearen ginkana egin dugu. Arratsalde dibertigarria benetan!

Luxua izan da zuen azalpenak jasotzea. Eskerrik asko Joxe Mari, Maripi eta Elena.



LEHEN HEZKUNTZA 4

Gure bodegoiak


Bodegoia bizitzarik gabeko natura, arte lan mota bat da. Esaten da Caravaggiori zor zaiola lehen bodegoia.

Bodegoi desberdinak marrazteko, diseinatzeko eta sortzeko aukera izan dugu.

Hasteko, bodegoi bat zer den ikasi dugu eta berehala arkatzez marrazten eta diseinatzen hasi gara. Gero, gelako objektuak erabiliz talde txikitan gure bodegoia sortu dugu. Beste egun batean, etxetik ekarritako fruituekin eta barazkiekin konposizio desberdinak egin ditugu. Bodegoia nola eta nondik begiratuko dugun adostu ondoren marraztea erabaki dugu. Konposizioak argizarizko margoz ere egin ditugu, baita tenperaz ere. Bukatzeko, bodegoiari bolumena ematea pentsatu dugu eta horretarako plastilina erabili dugu.

Ikusi-ikusi zein politak geratu diren!

Oso ongi pasatu dugu eta artistak garela konturatu gara!



LEHEN HEZKUNTZA 5

Bizitza jirabiran



Lur planeta.

Errotazioa – Eguna eta gaua.

Translazioa – Urtea, urtarokak.

Ilargia – Eklipseak...

Naturako eta unibertsoko bitxikeriekin ibili gara atzera aurrera, jira eta bira, LH5. mailaren hasiera honetan. Tartean, Eureka! Zientzia Museora joan gara gure aurretik hainbat ikasle-belaunaldi bezala.

A ze gozatua! Baina... ondorengo belaunaldiek galduko al dute?

LEHEN HEZKUNTZA 6

Oiartzungo bertsolariak. Kaskazuriri gure omenalditxo

Mundua aldatzen ari dela eta guk horretan eragin handia dugula oso garbi ikasi dugu LH6. mailakook 1. unitatean. Baina **mundua aldatzen ari bada ere, badira zenbait kultur-adierazpen, bertsolaritza kasu, aldaerak jaso arren urteetan mantentzen direnak.**

Euskararen bertsolaritza landu dugu, neurriak, errimak, doinuak... eta bertso emanaldi bat eskaini diegu LH4. mailakoei. Horrez gain, Oiartzun herri bertsolaria izanik, **herri kurrikuluma landu dugu eta Oiartzungo bertsolari ezagunak eta haien bertso batzuk ezagutu eta ikasi ditugu:** Jose Joakin Urbietta *Kaskazuri*; Manuel Olaizola Urbietta *Uztapide*; Jose Joakin Mitxelena; Xabier Lete; Koxme Lizaso, Jon Martin; Alaia Martin; Ander Lizarralde... Ez genuen uste hain luzea zenik gure herriko bertsolari ezagunen zerrenda. Diotenez, oiartzuar guztiok omen dugu bertsolari txiki bat barruan, egia ote da?

Bukatzeko, **gure omenalditxo egin nahi izan diogu Oiartzungo bertsolari ezagun bati, Kaskazuriri.** Bere anaiak Amerikatik bidalitako **Nere sentimendua bertso ezagunak ikasi ditugu eta bere jaiotetxera joan gara,** Zurko baserrira, bertan kantatzera.

Gure omenalditxo ikusi nahi? Begira-begira bideoa!



DBH 1

Antzerkia 1. eta 2. proiektuak

DBH 1. mailako antzerki arloan 2. proiektua amaitu berri dugu. Lehenengo proiektuan ipuin klasiko bat aukeratu behar izan genuen, ondoren ipuinaren gidoia sortzeko. Gidoia sortzeaz gain, irudi eta soinu ezberdinez baliatu gara atrezzoak sortzerako garaian. Zenbait entseguren ostean, gure lana gainontzeko taldeen aurrean antzeztu dugu.

Bukatu berri dugun bigarren proiektu honetan, aldiz, gure helburua lehenengo proiektuan aukeratu genuen ipuin klasikoaren bertsio berria edo eraldatua sortzea izan da, non pertsonaien rolak guztiz eraldatu ditugun. Errauskine bihurria edota hiru txerritxoak ipuinaren antagonista bezala jokatzen ikusi ditugu, adibidez!

Hona hemen gure antzezpenen argazki batzuk.


DBH 2

Fisika eta kimika

Glasgoweko goi bileran hainbat herrialdeetako agintariek klima aldaketa hizpide izan duten bitartean (bla, bla, bla...), DBH2. mailakoek airearen arazoak aztertu eta infografiak eraiki ditugu.

Materiaren izaera eta egitura aztertu ondoren, gure gizartean material ezberdinen erabilera sortzen dituen arazoak aztertu ditugu. Zaborra, uraren kutsadura, airearen kutsadura... Airearen kasuan, airea kutsatzen duten eragileak aztertu, zer ondorio dakartzaten eta ondorioei aurre egiteko proposamenak egin ditugu.


Lurraren beroketa globala eta klima aldaketa ekiditeko neurriak hartu behar ditugu. Norbanako bakoitzak du bere ardura gai honetan. Hau da gure erronka, guztiona. Hitz egiteari utzi eta EGIN; zain dezagun gure lurra.

Nara Susperregi Barroso

AIREAREN ARAZOAK

FISIKA eta KIMIKA

BEROTEGI-EFEKTUA



Hobetze proposamenak

- Erabili autoa gutxiago eta garraio publiko gehiago.
- Aurreztu energia.
- Apustu auto elektrikoan alde.
- Ingurumena sentibilizatzeko kanpainak sortu.
- Kutsadura murrizteko balio duten proiektuak garatzea.

Ondorioak

Lurraren tenperatura orokorraren graduak igoko dira, lurburuetako izotza urtu egingo dira eta urrutako ur horrek itsasoetako maila igoaraziko du. Horrek kostaldeko hiriak arriskuan ipin litzake eta baita milaka animalien bizia ere.

Eragilea

Klima aldaketa, hau da, Egunotan gertatzen diren eguraldi-aldaketa ustegabekoak, giza ekintzek eragindako berotegi efektua da errundun.

OZONO-GERUZA

Ondorioak

Giza osasuneran

Larruzaleko minbizia: B ultramore erradiazioaren legeginean egotearen lotutako gaixotasunik ezagunenetako bat da. Eguzkia hartu behar da babesarekin, gaixotasuna momentu honetan agertzen ez baita, urteen poderioz baizik.

Immunitate sistemaren inplikazioa: Organismoaren gainean jarduteak gaixotasun infekzioen aurka babesteko gaitasuna murrizten du pixkanaka.

Ikusmenaren asaldura: kataraktak eta presbiopia maizago sortzen dira.

Arnas aparatuko arazoak: Arazo batzuk asma dira, atmosferako beheto geruzetan ozonoa handitu delako.

Lurreko eta itsasoko animalietan

Lurreko animalia guztiak eragiten die negatiboki eta gizakien antzeko ondorioak ditu. Itsas faunari dagokionez, erradiazio hori azalera iristen da ozonoetako fitoplanktonari zuzenean eragiten dion moduan. Fitoplankton horrek populazioak murriztu egiten ditu elikagai katean eragina duen neurrian.

Landareetan

Erradiazio ultramore kaltegarrienaren intzidentziak landare-espezien garapenean eragiten du, loratze- eta hazkunde-aldiak aldatuz. Horrek guztiak landare eta laborantza populazioen murrizketan eragiten du.



Hobekuntza proposamenak

Hozkailu zaharra 1995 aurretik egin bada, erabiltzeko **hozgarria CFCz** egin egongo da.

Egokiena hozkailu berria erostea izango litzateke, eta zaharra behar bezala bota dela ziurtatzea.

1994 aurretik egindako **aire egokituak** bada Freon izeneko **CFCa** erabiltzen zuten.

Oraindik haletako bat badugu, hura kendu eta berria erosteko garaia da. Aire giroa **berriagoak** ere **HCFC izeneko kimikoak** erabiltzen dira. HCFCak ozonoarentzat hobeak badira ere, ozono-geruzaren galeraren eragile izaten jarraitzen dute; beraz, aire giroa ahalik eta gutxienez erabiltzen ahalagindu beharko genuke.


Aparrezko biltegi asko CFCa dute

Bestelako materialak erabili beharko genituzke, adibidez, egunkari zahar zimurtuz.

Eragilea

Gizakiaren hainbat ekintzek sortzen dute.

EURI AZIDOA



Ondorioak

Kutsatu ahal, ibaieko, lakuak eta ozeanoetako ura azido bihurtzen da eta gizakiak, landarek eta animaliak arriskuan jartzen ditu.

Hainbat adibide:

- **Lurzoruen azidoztea:** Egia bada ere, landare asko lur azidoetan hazten direla, Asiatic datoen gehienak bezala, badira beste batzuk egokitzeko zailtasun gehiago izango dituztenak, esate baterako, algarroba edo almendra, eskualdeko bi zuhaitz. Karamizko lurzoruen bakanrik haz daitezkeen mediterraneo. Euri azidoak sustraiak funtzioa mantentzea izatea saihestuko du, batez ere kaltzioa. Aurragero, lurzoruen osasuna aldatuko duen metalak sartuko dira (manganesoa, merkurioa, beruna, kadmioa).
- **Landaredia kaltetua** denaz eta **guk** ondorioak sufritzen ditugu alikiduraren bidez.
- Euri azidoak gizakiak bere garaian karehariz egindako eskultura historikoak igazten ditu.

Hobekuntza proposamenak

- Erabili autoa gutxiago eta garraio publiko gehiago.
- Aurreztu energia.
- Apustu auto elektrikoan alde.
- Ingurumena sentibilizatzeko kanpainak sortu.
- Kutsadura murrizteko balio duten proiektuak garatzea.

Eragilea

Gizakiaren hainbat ekintzek sortzen dute.

DBH 4

Bidasoako jaitsiera 2021

Udazkenaren etorrerarekin batera, ezin udako egunak atzean utzi eta urarekin jolasean jarraitu asmoz, Bidasoa ibaian murgildu ginen DBH4 mailako ikasleak.

Irungo Santiagotarrak elkarteari esker, aurten ere posible izan da irteera eder honetaz gozatzea. Adrian eta Jone beti bezain prestu izan genituen, bai bulego lanetan baita ibaian gurekin batera murgiltzeko ere.

Endarlatzako txoko itzaltsutik abiatu eta bidean zehar geldialdi pare bat eginez, 9 km inguruko ibilbidea egin genuen, korronte, beltxarga, zubi eta palada neketsuen artean.

Bidasoaren bi aldeak ezagutu (baita batetik bestera pasatu nahi duten etorkinen errealitatea gogorra ere), jarduera fisikoa egin, talde giroa sendotu eta naturaz gozatzeko aukera ematen digun irteera honetaz gozaten jarraitu nahi dugu luzaroan. Disfrutatzen jarrai dezagun!



DBH 3 EKImaker

LH3 eta DBH3. maila **EKImaker** proiektuan murgilduta gabiltza. Baina, zertan datza EKImaker? Maila desberdinetako ikasleak elkarlanean arituz, gizarteko hainbat premiari erantzuteko soluzio teknologiko berritzaileak sortzean. Eraitza bezala, makina berri bat ekoizteko aukera dute ikasleek.

Lehen hiruhilabete honetan, proiektuaren lehen faseak egin ditugu. Lehen Hezkuntzako ikasleek hainbat arazo edota ideia pentsatu eta proposatu dizkigute bideodei bidez. Gelako ideia bana aukeratu dugu: DBH3A gelan kotxe pintxodunarekin gabiltza lanean, DBH3B gelan tren motocros geltokiduna eskatu digute eta DBH3C gelan, aldiz, tanke kanika jaurtitzaila. LH3koen ideia bikainak eskuartean hartu eta maketa egiteko lanean buru belarri gabiltza jada DBH3koak. Lehenik, eskaera aztertu eta beharrezko informazioa bildu dugu. Ondoren, gure marrazketarako trebezia baliatuz diseinuak egin ditugu. Eta orain, tailerrean gabiltza maketa eraikitzen.

Maketak bukatzen ditugunean izango duzue gure berri, baina bitartean tailerrean jarraituko dugu lanean. Laster arte!



IKT gela berria

Oiartzo Ikastolan IKT gela berria dute. Orain bi urte hasi zuten IKT azpiegituraren eraberritzeari jarraipena emanez, aurtengo ikasturtean estreinatu dute.

DBHk orain dela urte batzuk hasi bazuen ere ordenagailu eramangarrien ibilbidea, ez da hainbeste denbora gisa horretako ordenagailuak batxilergora iritsi zirela. Orain arte, ikasleek ordenagailu eramangarriak eskura ez zuten, Oiartzoko IKT mintegiak ikasgela kopuruari ematen zion garrantzia. Hiru IKT gela zituzten, ahalik eta talde gehienek ordenagailuak erabiltzeko aukera izateko, IKT saioan eta baita saio arruntetan ere.

Azken ikasturteetan, ikasleak DBHn erabilitako ordenagailuak Ikastolara eramaten joan dira, eta horrela, ordenagailu eramangarriak ohiko gelatarako sartu dira. Gaur egun, ia ikasle guztiek ordenagailu bat ekar dezakete ikastolara. Errealitate horrek Oiartzoren IKT azpiegituraren inguruko hausnarketa egitera bultzatu zituen. Hausnarketa honen ondorioa argia izan zen: kantitatean oinarritutako azpiegitura batetik kalitatean oinarritutakora igaro behar zutela.

Hau horrela, orain bi urte IKT 1, Oiartzoko IKT gela nagusia, berritu zuten, puntako ordenagailuekin hornituz. Aldaketa hori egin zenetik, gela hori IKT saioetarako eta potentzia handia eskatzen duten lanketarako erabili izan da.

Berrikuntzekin jarraituz, **IKT 2 gela geratzen zitzaien egiteko. Gela hau izan da joan den udan eraldaketa nabarmenena jasan duena.** Orain arte ohiko saioak ordenagailuekin lantzeko

moduko gela bat zen: 35 PC, ikasgela antzeko formatuan. Beharrei erantzunez, ikasleak euren ordenagailuekin datozenez, gelaren formatua aldatzea erabaki dute:

- Talde lanerako formatua: mahai handiak jarri dituzte, ohiko ikasgelaren formatuarekin hautsiz, taldean lan egiteko. Mahai guztiak kargatzeko puntuekin hornitu dituzte, Chromebookak kargatu ahal izateko.
- 12 mahai gaineke ordenagailu utzi dituzte. Ordenagailu propioa ez dutenen beharrak asetzeko prestatu dituzte ordenagailu hauek.
- Interneterako konexio guztia Wi-Fi bitartez bideratu da, mahai gaineke ordenagailuak barne. Honek malgutasuna ematen die ikasgelaren formatua, gailuak edo antzeko aldaketak egiteko, instalazioa askoz ere sinpleagoa delako.

Honetaz gain, mahai gaineke ordenagailuak Linux sistema-eragilearekin jartzea erabaki dute. **Software askearen aldeko apustua egin dute,** ikasleen burujabetza teknologikoan aurrerapausoa egiteko eta sistema/eredu berriak erabiltzen ikasteko. Etorkizunean ikasgela hori gela irekia izateko proposamena mahai gainean dago, egoera zaurgarrian dauden ikasleek eta IKT baliabide propioak ez dituztenek erabili ahal izateko saioetatik kanpo ere.

ESKUTTUN TALDEA

Euskararen grinaz kutsatzeko asmoz

Beste urte batez ere gogor dator Eskuttun taldea!

2004az geroztik euskararen alde burubelarri lanean aritu ondoren, Eskuttunen historian 17. kapitulua idazteko energia eta gogo biziz gatoz!

Aurten 50 lagun ingururen artean banatuko ditugu eginbeharrak eta lanerako gure arma den hitza zorrozten ari gara. Gainera, DBH1etik datozten bide lagun berriak ditugu. Baita, aurten azkeneko urteaz gozatzen ari diren DBH4ko gazteak.

Aurtengo ikasturtean ekintza askorekin heldu gara! Ikastolako hainbat jardura antolatuko ditugu, baita batzuetan parte hartu ere: Euskararen Eguna, Juul kanpaina, Korrika...

Baina batez ere, euskaraz disfrutatuz, ongi pasatu eta geure onena emateko asmoz gatoz.

Segi dezagun euskaraz gozatzen!

Ongi izan.



Hamaika kutixi filosofiko

Maddi, Izaro, June eta Xabi gara Oi(h)artzun Filosofikoa josten duen laukotea. Ia bost urte daramatzagu, hainbat sortzailerekin batera, herrian Haur Filosofia saioak antolatzen, eta ikastolako ikasle askok parte hartu izan du bertan. Herritarrei eskainitako Ilunabar Filosofiko irekiak ere antolatu ditugu, hainbat formaziorerkin batera. Saio horiek guztiek berretsi egin dituzte gure hasierako hipotesiak: ez dagoela gai filosofikoei buruz hausnartzeko adinik, eta, halaber, espazioak eta euskarazko materialak urriak direla.

Hutsune horiei erantzun asmoz, eta Haur Filosofia oinarri izanik, dagoeneko Dixidun edo Laboren eskura dezakezen materiala sortu dugu; pentsamendu kritikorako euskarazko pizgarriak eskaintzea xede duen kutixi-kaxa.

Esan beharrik ez dago hamaika direla filosofiak dituen adarrak. Hala, hamaika dira guk bilduma honetarako hautatu ditugun gaiak ere. Gai horiek lantzeko elkarrekin lotura zuzenik ez duten kontakizun eta ilustrazio sorta bat osatu dugu. Hasiera batean LH eta DBHko ikasleentzat zuzendua baldin badago ere, material honek adin guztietarako balio du eta hartzailea izango da nahi besteko sakontasun maila emango diona.

Hamaika testu, hamaika ilustrazio eta hamaika galderaz osatutako hamaika txartel dira, beraz, kaxa berezi honetan topatuko dituzuenak. Literaturarekin gozatzea, guk sortutako galderekin filosofatzea edo galdera berriak sortzea, aukera desberdinak eskaintzen ditu material honek.

Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero: oihartzunfilosofikoa@gmail.com

Eskerrik asko eta segi filosofatzen!



Liburu txokoa berriro martxan

Covid-19ak eragindako osasun egoeraren ondorioz, hain gustukoa dugun Liburu Txokoa itxita izan dugu.

2021-22 ikasturtea hasi eta aste batzuetara, azkenean, martxan jarri ahal izan dugu, **gutxienez, barne erabilerarako**.



Irakurzaletasuna piztea da helburua; txiki-txikitatik liburu artean ohitzea, liburuekin jostatzea eta gozatzea.



Adinean aurrera egin ahala, zaletasun hori elikatu eta indartu nahi dugu; irakurketaren afizioa ohitura bihurtuz, ibilian-ibilian, Liburu Txokoa gozatzera heltzeraino.

Liburua altxor preziatua da, hezkuntza integralerako oinarritzko zutabea.

Komikigintza

Duela bi ikasturte DBHko ikasleekin martxan jarritako ekintza da. Pandemiaren eraginez bertan behera geratu zitzaigun eta aurtengo ikasturtean berriz ere ekin diogu. Talde txikia da, baina zaletasun, gaitasun eta sormen izugarria duten ikasleak ditugu. Hodei Iparragirre da monitorea eta komikigintzan eskarmentu handia duen pertsona da.

Aurrerago beraien lanak ikusgai izango ditugu denok goza dezagun, baina oraingoan lanean harrapatu ditugu eta hona egiten dutenaren lagin txiki bat argazki hauetan. Artistak!



Eskolaz kanpoko ekintzak 21-22 ikasturtea

Haurtzaro Ikastolan eskolaz kanpoko ekintzetan aitzindari izan gara eta hala izaten jarraituko dugu aurrerantzean ere. Pandemiak eragindako zailtasun eta oztopoen gainetik, ikasleek aisialdi eskaintza hezitzailea izan dezaten ari gara lanean eta horretan jarraituko dugu.

Ikasturte berria hasi dugu aurten, baina eskolaz kanpoko ekintza guztiak martxan jartzea zaila zaigu. Hala ere, saio presentzialak egiteko aukera dugu eta herriko baliabideei esker talde asko martxan jartzeko aukera izan dugu, beraz, eskerrak eman beharrean gara Oiarzungo Udalari eta Abaraxka ludotekari beren instalazioak eskuragarri jartzeagatik. Mila esker!

Aurten, oraingo martxan jarri ditugun ekintzak hauek dira:

- Trikitia.
- Panderoa.
- Gitarra.
- Antzerkia.
- Bertsolaritza.
- Dantza modernoa.
- Euskal dantzak.
- Robotika (Gaurkotekekin).
- Mekanografia (Kluppy-rekin).
- Komikigintza (DBH mailan).
- Atletismoa.
- Eskola Kirola.

Zorionak idazle gazteei!

Oiartzungo Udalak antolatzen duen XXXIV. Xabier Lere Prosa eta Poesia lehiaketan sarituak

MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	EGILEA
LH3	1. SAILA		
	. SARIA	MARINEL ZOROAK	Elaia Lasa Gelbentzu
	. SARIA	UME ARRAKASTATSUA	Xuhar Larretxea Muxika
LH4	2. SAILA		
	. SARIA	LIBURUEN MUNDUA	Luka Ellenrieder Goikoetxea
	. SARIA	AIUM ETA LIBURUA	Kattin Garay Mendiboure
	Aipamen berezia	LEHIAKETA	Irati Zabalo Aranburu
LH5-6	3. SAILA		
	. SARIA	HEGAN	Oier Frantsesena Arnaiz
	. SARIA	NIRE LAGUNA LAGUN	Udane Bereau Cortajarena
	Aipamen berezia	JOANE ETA TXURI	Maddi Susperregui Yerobi
DBH 1-2	4. SAILA		
	. SARIA	SUA	Nara Susperregi Barroso
	. SARIA	EZINAREN BEHARRA	Xuhar Sarasola Amigorena
	Aipamen berezia	EGUN LUZEAK FANTASIAN	Leire Suarez Yague
DBH 3-4	5. SAILA		
	. SARIA	TREN GELTOKIA	Uxue Etxeberría Elizetxea
	. SARIA	ARNAS BIDEA	Lide Larrea Etxebeste
	Aipamen berezia	ATSO EUSKALDUN BATEN MEMORIAK	Mattin Gelbentzu Beristain
16-18	6. SAILA		
	. SARIA	IHESALDIA ASKE	Malen Frantsesena Arnaiz
	. SARIA	ZERTZELADAK	Mattin Etxebeste Sanzberro
MAILA	POESIA	LANAREN IZENA	EGILEA
LH5-6	3. SAILA		
	. SARIA	BELDURRA	Aitor Agirre Gonzalez
	. SARIA	MUNDUKO EZBERDINTASUNA	Laiene Castellano Otegi
	Aipamen berezia	DENBORA	Mireia Sagarra Martin
DBH1-2	4. SAILA		
	. SARIA	NIRE AMETSETAN	Ekhi Arizmendi Teiletxea
	. SARIA	IZAN NAHIKO NUKE	Joane Irigoien Etxebeste
	. SARIA	IHESI	Ilargi Ziaurritz Olaziregi
DBH3-4	5. SAILA		
	. SARIA	GU GEU, GEU GU	Jurgi Arbelaitz Guridi
	. SARIA	MUSIKAZ SORTUZ GERO...	Unai Wolfram Recalt
16-18	6. SAILA		
	. SARIA	BILHUTSIK	Lohizune Telletxea delgado
	. SARIA	ERABAKIAK	Ane Garmendia Irastorza
	Aipamen berezia	ZU	Maren Aginaga Bote



Garai hotzenean ere
kimuak bere bidea
aurkitzen du.
Urte berri on!

Arkaitz Barriola



Matrikulazio epea

Urtarrilak 17-28

Aurkezpen bilera

**Urtarrilak 19,
asteazkena, 17:00etan,
Urmendin.**

Ate irekiak

**Urtarrilak 20 eta 21,
17:00etan.**



* Covid-19ak eragindako osasun neurriak direla-eta aurkezpen bilerara edo ate irekietara etorriko bazarete, aurrez izena ematea beharrezkoa da. Horretarako, ondorengo telefono zenbakira dei dezakezue 943 491 659 (idazkaritza) edo ondorengo helbide elektronikora mezu bat bidali idazkaritza@haurtzaro.ikastola.eus.

Elorrondo, z/g – 20180 – Oiartzun
Tel. 943491659
haurtzaro@ikastola.eus
www.haurtzaroikastola.eus